



ALKIZAKO UDALA

OSOKO BILKURA BEREZIA 2023-06-17

2023ko ekainaren 17an, Alkizako Udaletxeko Fagus interpretazio zentroan, goizeko 10.30 orduetan, Jarduneko Alkate Lehendakariak egindako deialdian, joan den maiatzaren 28an egindako hauteskundeetan hautatutako behean aipatzen diren Zinegotziak bildu dira:

ZINEGOTZIAK: Iñaki Xabier Irazabalbeitia
Fernandez

Ana Agesta Echeolonea
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Nagore Arizeta Garmendia
Unai Sorarrain Urruzola

Ekitaldian parte hartzen du eta fede ematen du Udaleko Idazkari-kontuhartzaile lanetan ari den Ane Gomez Urteaga andreak.

Idazkariak adierazten du, batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, Hauteskunde-Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko lege organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erreglamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa betez, ondoko gai-zerrendaren arabera:

- Udal Kaxa eta bankuetako depositoen arkeoa.
- Adin mahaia osatzea.
- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea.

1.-UDAL KAXA ETA BANKUETAKO DEPOSITOEN ARKEOA

Idazkari Kontuhartzaileak 2023ko ekainaren hamazazpian Udal Kaxa eta bankuetako depositoen arkeoaren berri ematen du:

Eskudiruzko izakinak:



ALKIZAKO UDALA

- Udaletxeko kutxan 154,71 €
- Kutxabank erakundearen 369.758,43 €

Guztira 369.913,14 €

MAILEGUA: Kutxabank erakundearen 197.916,75€

2.-ADIN MAHAIA OSATZEA

Ondoren, Hauteskunde-Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko lege organikoaren 195.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, adineko mahaia osatzen da ondorengo partaideekin:

- Jose M^a Aranzabe zinegotzi zaharrena denez, mahaiburu izango dena.
- Nagore Arizeta Garmendia zinegotzia gazteena delako.

Korporazioko Idazkaria, idazkari gisa arituko delarik.

Une honetan, Mahaikideek banan bana alde zuzenetik entregatutako kredentzial guztiak aztertzen dituzte, eta zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen duten kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak udaletxera bere garaian bidali zituenekin bat datozela egiaztatzen dute.

3.-KORPORAZIOAREN ERAKETA

Aurreko Operazioa egin ondoren eta kontutan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren 7 zinegotzietatik 5 etorri direla, hau da, gehiengo absolutu legala, mahaiburuak zinegotziak gonbidatzen ditu azal dezatela kargu izendapenaren ondorioz bateraezintasun arrazoien bat ukitzen dien, inongo azalpenik azaltzen ez delarik.

Jarraian, Idazkariak Hauteskunde Orokorren Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera zinegotzietatik ondorengo galdera egiten die:

“Hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziaz, Alkizako Udaleko zinegotzi karguak dakarzkizuen betebeharrak zintzo beteko dituzuela Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua, Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetatuaraziko dituzuela?”



ALKIZAKO UDALA

Ondoren, mahaiburuak zinegotziei banaka-banaka hots egin die, eta hauek ondorengo eran erantzun:

- IÑAKI XABIER IRAZABALBEITIA FERNANDEZ: “ Legeak aginduta, hitza ematen dut”.
- ANA AGESTA: “ Legeak aginduta, hitza ematen dut”.
- JOSE MARIA ARANZABE URRUZOLA: “ Legeak aginduta, hitza ematen dut”.
- NAGORE ARIZETA GARMENDIA: “ Legeak aginduta, hitza ematen dut”.
- UNAI SORARRAIN URRUZOLA: “ Legeak aginduta, hitza ematen dut”.

Jarrain, bilkurara hautaturiko 5 zinegotziak etorri direnez, beraz adineko mahaiak Udal Korporazioa eratutzat ematen du.

Ondoren, apirilaren 18ko 781/1986 Erret. Dekretu Legegileak onetsitako Erregimen Lokalaren alorrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratuko 86. artikulua eta ekainaren 13ko 1372/1986 Erret. Dekretuak onetsitako Udal Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 33.2 artikuluan xedatutakoa betez, alde aurretik zinegotzi guztiek zeukaten Udal Ondasunen Inbentarioari buruz edozein oharpenik egiteko aukera ematen zaie, inongo alegaziorik azaltzen ez delarik.

4.-ALKATEA AUKERATZEA

Bertan daudenei, Idazkariak adierazten die Hauteskunde-Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko lege organikoaren 196. artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean Alkatea aukeratu behar dela, lege horretan ezarritako prozedurari jarraituz:

- Zerrenda-buru diren zinegotzi guztiak izan ahalko dira hautagai.
- Bertan dauden hautatutako zinegotzi guztiak dira hautesle.
- Aukeraketa bozketa bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botoen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz gutxienez 4 boto beharko dira.



ALKIZAKO UDALA

- Botazio honetan inork ez badu gehiengo absolutua lortzen, udalerrian herri-boto gehien lortu dituen zerrenda-burua izango da alkatea.

Ondoren, zinegotzi guztiak beren botoa ematen dute, emaitza ondorengo hau delarik:

- Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez : 5 boto.

Bozketa honen emaitza ikusirik, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Jauna zinegotzi hautagaia Udal honetako Alkatea aldarrikatzen da, 5 boto horiekin gehiengo absolutu legala osatzen duelako.

Jarraian, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Jaunak Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazten du, eta *“Hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziaz, Alkizako Udaleko alkate karguak dakarzkizun betebeharrak zintzo beteko dituzula Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatutua, Estatuko oinarrizko arau gisa errespetatu eta errespetatuaraziko duzula?”* galderari, “Legeak aginduta, zin dagit”, bere kargua hartzen duela zin egin ondoren, korporazioko Udal Batzarraren aurrean karguaren jabetza hartzen du, indarrean dauden xedapenek ematen dizkion prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiekin.

Alkate Lehendakariak ekintza amaitutzat ematen du, goizeko 10.45 etan. Guzti honen akta jasotzen da, Udal Idazkari gisa horrela ziurtatuz.

